

BERANGO

gaur

58. ZBKIA 2016KO APIRILA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
21
Guztion konpromisoa
Un compromiso común

berangokoudala@berango.org



Larunbatean harraparien erakusketa egongo da 13:00etan eta 18:30ean.

ERDI AROKO AZOKAK DENBORAN ATZERANTZ ITZULTZEA ESKAINTZEN DU MOREAGAKO PARKEAN

ANTZERKIKO, MUSIKA-EMANALDIETAKO ETA ESKULANGINTZA-TAILERRETAKO IKUSKIZUNAK EGONGO DIRA

Berangoko Erdi Aroko Azokak iraganeko itzulera proposatzen du maiatzaren 13, 14 eta 15ean. Era askotariko eskuz egindako tailerrak, antzerki ikuskizunak suarekin, magia, txotxongiloak, musika-emanaldiak, ipuinkontalariak eta falkoneria-erakusketak egongo dira Moreagako parkean. Han kanpamentua eta Erdi Aroko zokoa kokatuko dira, garai hartako eskulangintza tipikoarekin.

Ostiralean agenda arratsaldeko bostetan irekiko da, parte hartzen duten taldeek egindako inaugurazioko kalejirarekin. Ordu horretan ere kanpamentua martxan jarriko da eta saltoki desberdinak irekiko dira, bai ezzenatokian baita esparru guztian ere ikuskizunak dauden bitartean. Tailerrak ere abiaraziko dituzte, ia hogeiz izango direlarik. Tailer guztiek monitoreak izango dituzte eta izaera parte-hartzailea izango dute. Buztina, egurra, beira puztea, mosaikoa, artilea, oihalak tintatzea, landareak, jarapak, urregintza, larrua zurratzea, narrak, erretxina, zapatagintza, zintzarriak, ardo-botak, arte-latza, kortxoa, kardatzea, espartzua eta txanponak-sortzeko tailerrak egongo dira.

Ordu erdi beranduago, antzerki eta musika taldeek azoka girotuko dute. Txotxongilolariak, malabaristak eta magoak egongo dira eta, hauekin batera, zuzenean eskainitako antzezlanak eta ipuin kontalarien saioak ere ikusi ahal izango dira.

Arratsaldeko seietan, Pirueta Teatro taldearen txotxongiloen txanda izango da. 18:30ean harraparien hegaldiaren erakustaldia burutuko da. Hogeita hamar minutu geroago Lurte, folkeko banda aragoiarra, eta musika zeltan espezializatutako Jabardeus taldeen kontzertua hasiko da.

Taratuga Teatro taldeak azoka girotuko du arratsaldeko zortzietan antzerki ibiltariarekin. 21:00etan tailerrak eta erakusketak itxiko dira eta gaueko hamaiketan musika

eta antzerkia batzen dituen ikuskizuna hasiko da. Larunbateko eta igandeko jardunaldiak ikuskizun berdinarekin amaituko dira, gaueko hamaiketan eta hamarretan, hurrenez hurren.

Bi egun horietan, azoka goizeko hamaike-

tan zabalduko da eta esparru osoan musika, antzerkia eta ikuskizunak egongo dira. Larunbatean harraparien erakusketa egongo da 13:00etan eta 18:30ean. Eta igandean herri kirolen erakusketa egongo da arratsaldeko ordu batetan.



Antzerki eta musika taldeek azoka girotuko dute.

Udako koloniek Berangotik txango erakargarriak antolatu dituzte

Aurreikusitako programa guztiak, gehienak uztailean, euskaraz garatuko dira.

Txango dibertigarriak antolatzen dituzten udako kolonien zozketa publikoa maiatzaren 9an izango da, arratsaldeko 19:00etan Berangoetako areto nagusian, onartutako behin betiko zerrenda aurreko egunean argitaratu ondoren. Programa guztiak euskaraz burutuko dira eta ekimen honetako helburuen artean hizkuntzaren erabilera bultzatzea, eskoletako udako oporretan familien bizitza errazten duten aktibitateak antolatzea eta parte hartzen duten umeen arteko giza-harremanak sustatzea daude. Ekainaren 15ean gurasoentzako informazio batzarra egongo da, 19:00etan Berangoetako areto nagusian.

Txagoei eta irteerei dagokienez, 2002 eta 2004 urteen bitartean jaiotakoentzat Lekeitiora hiru egunetako txangoa antolatu da, uztaileko 24tik 26ra. Ludotxikiaren kasuan, 2011 eta 2013 urteen bitartean jaiotakoak, egutegiak lau irteera aurrekusten ditu. Lehenengo Izenadubara, Mungian, izango da ekainaren 30ean. Uztailearen 7an Lurraskara, Ajangiz; hile honen 14an Zirkozaurrera, Bilbon, eta 2lean Karrantzako Karpin Abenturara.

Aktibitateak Udako Ludotekari ere eragingo dio, Berango Merana Ikastetxean zabalik egongo dena, 2008 eta 2010 urteen bitartean jaiotakoentzat. Lehenengo irteera Sobron Abenturara, Araban, izango da, ekainaren 29an; Cabo Billanora, Plentzian, uztailearen 6an; Cabarcenoko parkera, Santanderren, uztailearen 13an; Gamarrako igerilekuetara, Gasteizen, uztailearen 20an eta bizikletarekin irteera bat egongo da Algortako Portu Zaharrera, 18an edo 19an.

Aktibitate ez da faltako Santa Anako Ludoklubean ere. 2006 eta 2007 urteen bitartean jaiotakoentzat Fadurako igerilekuetara (ekainak 29), bizikletarekin Portu Zaharrera (uztailak 1), Santanderreko Forestal Parkera (uztailak 13), Gamarrako igerilekuetara (uztailak 18) eta Sobron Abenturara (uztailak 20) irteerak antolatu dituzte.

2005 eta 2006 urteen bitartekoak Forestal Parkera ekainaren 28an joango dira. Gainontzeko irteerak uztailean izango dira: 6an Fadurako igerilekuetara; 8an bizikletarekin Portu Zaharrera; 18an Gamarrako igerilekuetara, eta 20an Sobron Abenturara. 2002 eta 2004 urteen bitartekoak uztailean izango dituzte jarduerak guztiak. Programa 5ean hasiko da, Fadurako igerilekuetara txango bat eginez; 13an Forestal Parkera joango dira; 15ean bizikletarekin Portu Zaharrera; 18an Gamarrako igerilekuetara eta 20an Sobron Abenturara.



Eguneko Zentroak bere zerbitzuak normaltasunez eskaintzen jarraitzen du Tindoufen.

EUSKAL ORDEZKARIEN BISITA ERREFUXIATU SAHARAREN KANPAMENTUETARA

EGUNEKO ZENTROAK BERE ZERBITZUAK NORMALTASUNEZ ESKAINTZEN JARRAITZEN DU TINDOUFEN

Saharako Errepublika Demokratiko Arabiarren (RASD) sorreraren 40 urteurrenaren ospakizuna dela eta, RASD berak Argeliako errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bisita bat antolatu zuen eta euskal ordezkariak gonbidatuak izan ziren. Eusko Jaurlaritzako, hiru foru aldundietako, Bizkaiaiko Batzar Orokorretako eta probintziako udaletako ordezkariak egon ziren eta antolatutako hainbat ekitalditan parte hartu zuten. Eusko Jaurlaritzaren izenean Kanpo Harremanen Saileko idazkari orokorra den Marian Elorzak parte hartu zuen eta Garapenerako



Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria den Paul Ortega ere egon zen, Europako beste herrialdeetako ordezkari

ekin batera.

Berangoko alkatea den Anabel Landa gonbidatuetakoa bat izan zen ere. Bere egonaldian Udalak

Tindoufen eraikitako Eguneko Zentroaren egoera egiaztatzeko aprobeztatu zuen, zonalde horrek urte honetan pairatutako uholde larrien ondoren. Jausitako ur kantitate handiak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako etxebizitza asko bertan behera botu zituen edo kalte handiak eragin zizkien.

Berangoko Udalak Nagusientzako instalazioak ere martxan jarri zituen errefuxiatu sahararren eskaeraren ondorioz. Kasu horretan, Landak egiaztatu ahal izan zuen Eguneko Zentroaren langileek beraiek, gertatutako kalteak konpondu dituztela eta zerbitzuak normaltasunez eskaintzen jarraitzen dutela.

Agenda Berango Antzokia

Abril 2016ko Apirila

• **7 de mayo // 19:00etan**
"TODAS SOMOS COMPAÑEROS"
Antzerki Amateurraren V. Jaialdia. Itzartu. Sarrera 3 euro.

• **8 de mayo // 18:00etan**
"HOME, HOGAR DULCE HOGAR"
Animazio zinea umeentzat. Gaztelaniaz. Doan.

• **14 de mayo // 19:00etan**
"LA BARCA SIN PESCADOR"
Antzerki Amateurraren V. Jaialdia. Sutondoan. Sarrera: 3 €.

• **15 de mayo // 18:00etan**
"ASTERIX. JAINKOEN EGOITZA"
Zinea adin guzientzat. Euskaraz. Doan.

• **21 de mayo // 19:00etan**
"LAS MUJERES SABIAS"
Antzerki Amateurraren V. Jaialdia. Txirlora-ACADAE. Sarrera: 3 €.

• **22 de mayo // 18:00etan**
"LA OVEJA SHAUN. LA PELÍCULA"
Animazio zinea umeentzat. Gaztelaniaz. Doan.



• **28 de mayo // 19:00etan** Ikasturte amaierako erakustaldia Kultur Etxeko aisialdi ikastaroen erakustaldia. Doan.

Para recibir la agenda por e-mail:
euskara@berango.org



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gehigarri honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du

Berango
Guztiz konpromisoa
Un compromiso común
21

Amateur Antzerkiaren Jaialdiak dramagile klasikoaren hiru lan aparta aurkezten ditu

Dibertsioa eta gogoeta ziurtatuta daude maiatzaren 7an hasiko den edizio honetan

Amateur Antzerkiaren Jaialdiak hiru lan aurkeztuko ditu. Ikuskizunak maiatzaren 7an, 14an eta 21ean antolatu dira Berango Antzokian arratsaldeko zazpitan, eta hara hurbiltzen den publikoak entretenimendua eta gogoeta ziurtatuta izango ditu. Hiru dramagile klasikoek idatzitako lan bikainak dira, umore kut-su handia dutenak.

Sopelako Itxartu elkarteko antzerki taldeak jardunaldi hauei hasiera emango die, pasadan edizioan antzeztu ezin izan zen muntaiarekin. “Todas somos compañeros” Jaime de Armiñan dramagilearen lana da. Ironiaz eta umorez beteta, emakumeak bakarrik lan egiten duten bulegoan gizon bat lan egiten hasten denean gertatutakoa azaltzen du. “Oso dibertigarria da”, azaldu du Itxartuko zuzendaria eta jaialdiaren antolatzailea den Fernando Ansoleagak.

Maiatzaren 14an, Sutondoan taldeak Alejandro Casonaren “La barca sin pescador” aurkeztuko du. Txinako atsotitz baten inguruko hausnarketa da. Atsotitzak honakoa planteatzen du: zer egingo zuten pertsonak beste norbait hiltzeagatik diruz handia eskainiko baliote, hilketan parte hartzeko beharrik ez balute. Kasu honetan protagonista negozioko gizon gogorra eta krudela da eta porrot egiten duenean deabrua agertzen zaio tentatzeko.

Txirlora-ACADAE (Arte Eszenikoen Lagunen Kultur Elkartea) herriko antzerki taldeak “Las mujeres sabias” lana aurkeztuko du. Moliereren obra bat da, Ansoleagak XVIII. mendean girotu duena. “Oso dibertigarria da, oso barregarriak diren egoerekin; oso girotua dago eta, Moliereren guztia bezala, gaur egungoa dirudi”. Txirlora-ACADAEko zuzendaria jantziek “bisualki oso erakargarria izatea” lortzen dutela azpimarratzen du.



Berango Antzokian Parkinson gaixotasuna pairatzen duten pertsonen alde burutu zen abesbatzen topaketan.

Berangoko abesbatzek Asparbirekin abesten dute

Berangoko elkarte eta talde ezberdinak urtero elkartzen dira egun berezietan edo kausa onei laguntzen diete. Horrela gertatu zen ere Berango Antzokian Parkinson gaixotasuna pairatzen duten pertsonen alde burutu zen abesbatzen topaketan. Bizkaiko Parkinsoneko Elkartearen abesbatzak, Asparbi, ere parte hartu zuen. Beraien musikoterapia zerbitzuarekin gaixotasun hau pairatzen duten pertsonen abotsa eta hizketa trebetasunak hobetzen eta mantentzen saiatzen dira. Simon de Otxandategi dantza eta musika taldeen zuzendaria den Iñaki Gonzalez abesbatza honetako zuzendaria da ere. Asparbik Simon de Otxandategiko, Emakumeen elkarteko eta Nagusien Etxeko koruekin parte hartu zuen. Ekitaldia Duo Dinamikoaren “Resistiré” abesti ospetsuaren interpretazioarekin amaitu zen eta publikoak txaloaldi beroa eskaini zuen.





Elkar Kirolak txirrindularitza taldea aurkeztu zen Berango Antzokian

Ilusiona eta gogoak giro bikainean. Horrela bizi izan zen Elkar Kirolak elkarteko taldeen aurkezpena Berango Antzokian, honen edukiera betetarik egon zelarik. Aurrekariak hobeezinak dira, sasoiaren tarte honetan garaipen garrantzitsuak lortu dituen emakumeen taldea gehitu delako. Emakumeen taldea batzuek osasun bikaina duen taldeari ilusio gehiago ekarri dio. Elkartean 120 txirrindulari inguru daude, amateur eta eskola kategorietan dauden hainbat taldeetan bananduta. Duela urteak egindako lan onak bere fruituak ematen ditu eta taldearen zuzendaria den Javi Garcia-rentzat eta egunero lan egiten duten teknikari guztientzat poz handiko lorpena da. Horregatik erakundeek lan on hori sostengatzen jarraitzen dute, helburua sustraia sakanak dituen kirola finkatzea da. Herriko alkatea den Anabel Landak azpimarratu zuen bezala, Berangon harrobia ziurtatuta dago. Erandioko eta Leioako Udalek ere proiektu honi pozik laguntzen diote, Erandioko alkatea den Arrizen Monasterio komentatu zuen bezala.

Dantzaren Egunak ikusmin handia sortu zuen frontoian

Publiko ugari hurbildu zen Dantza Eguneko jardunaldi-
ra. Egun horretan herriko talde desberdinak elkartu ziren eta beraien lan bikaina erakutsi ahal izan zuten. Honako taldeek parte hartu zuten: Simon de Otxadategiko dantza taldea, Balletko Udal Eskola, Kultur Etxeko dantza modernoko taldea, areto dantzen taldea eta ATE eta Emakumeen Elkarteko sevillaneko dantza taldea.

Presentado el equipo de Ciclismo Elkar Kirolak en el Berango Antzokia

Ilusión y ganas en un ambiente soberbio. Eso se respiró en un Berango Antzokia, lleno a rebosar, en que se presentaron los equipos de Elkar Kirolak. Los antecedentes son inmejorables, porque se ha incorporado un equipo femenino que ha cosechado importantes triunfos en este tramo de arranque de la temporada y ha añadido más ilusión a una escuadra que goza de una excelente salud, con cerca de 120 ciclistas en los diferentes equipos que hay entre aficionados y la categoría de escuelas. El buen trabajo realizado desde hace años da sus frutos y es motivo de satisfacción para su presidente, Javi García, y los diferentes técnicos y técnicas que trabajan a diario. Por eso las instituciones siguen apoyando esa buena labor, cuya finalidad es afianzar un deporte tan arraigado y que en Berango tiene asegurada la cantera, tal y como resaltó la alcaldesa local, Anabel Landa. También los ayuntamiento de Erandio y Leioa contribuyen con satisfacción a este proyecto, según destacó Arrizen Monasterio, alcalde erandiota-
rra.

El Día de la Danza despertó gran expectación en el frontón

Numeroso público acudió al Día de la Danza, que otra vez reunió a diversos colectivos del municipio que tuvieron la oportunidad de mostrar su buen hacer a las personas asistentes. Participaron el grupo de danzas Simon de Otxandategi, la Escuela Municipal de Ballet, el grupo de baile moderno, además del de salón y ATE - todos ellos de la Kultur Etxea - y la compañía de sevillanas de la Asociación de la Mujer.

